

Azken urteotan OARSO urtekaria, era monografiko batean, Euskal Herriarekiko interesgarria jotzen zuen gai bat aztertzen saiatu da. Eta era horretan aritzeak badirudi harrera ona izan duela, behintzat jaso ditugun iritziak kontuan harturik.

Gure ustetan bestalde, urtekari honen bidez gure herriak euskal komunitateari zerbitzu bat eskeintzen dio, bertako arazo nagusiak ondo ezagutzen dituzten zenbait euskaldunen iritziak zabalduaz. Arrazoi hauek direlata, egitura berari eutsi diogu, eta zuegana gatoz, aurten, 1982. urtean, era askotara landu daitekeen gai batekin. Historikoki, izan behar lukeenari begiratu, etorkizunaren ikuspegitik, emankorra edo ez, iritzi desberdinen arabera. Askatasun osoz hitzeginez hemen doakizu honako gai honetaz bururatu zaiguna: «IRAKASKINTZA EUSKADIN».

Gai zabala benetan, gure laguntzaileei eskeini dieguna. Eta aberatsa bezain zabala, barruan lekua bait dute lehenari buruzko iritziak eta arrazonamenduak, eta era berean geroaldi emankor batean amestea, lortzeko ekinbideak eskeinirik gaur bertatik.

Oinarrizko gaia dugu bere nortasuna mantendu nahi duten herrientzat, eta are gehiago gurearentzat, bizi dugun une historiko honetan, bilakaera pobre eta geldo batera kondenatu diguten hizkuntza baten jabe izanik, eta nolabait orainari egokiera azkar bat lortzera behartzen gaituena, gure benetako eta eguneroko expresio bidea izatera iritsi dadin, hitzeginez eta idatziz, literaturaz, nahiz teknika mailan.

Idea osatzearen, azter zitezken gaien zerrenda bat eskeini genien gure laguntzaileei. Gertakizun zehatzen aipamena ahaztu gabe, zerrenda horren izenburuak berak adieraz diezaguke gaiaren hedadura: «IRAKASKINTZAREN AZTERKETA EUSKADIN. ESKOLATIK ABIATUZ, IKASTOLATIK IGAROAZ, ETA UNIBERTSITATERAINO».

Gero, eta beste urteetan bezala, berriro ere, zai egon beharra gertatu zaigu, Zai egon beharra, herstura apur hori, beste urteetatik ezagutzen dugun kezka eta larriuraren arteko hori sentituz.

Ezbaiko egoera bat da, eginkizun horretan «harrapatuak» gaudela ohartzen gara, eta badakigu gure laguntzaileek beren idatziak bialtzen dizkigutenean, eta gaiari zenbaiterainoko mamia atera dioten ikusten dugunean, bakarrik askatuko garela.

Orain dena amaitu da, irakurle gurea, eta emaitza zure eskuetan daukazu.

Emaitza hori epaitzeko egokienak ez bagara ere, asmoa maila handi batean bete dela deritzagu. Hezketa, irakaskuntza, erakutsiak, jakite eta beste hainbat hitzen erabilpena azaltzen da idatzietan, kontzeptuen sakontasunaren adierazgarri. Bertako idazleak herrimiaz eta oroipenarako joeraz errudun dira beharbada, baina herriko argitarapen batean errutik baino historiatik gehiago dutelakoan gaude.

Eta bukatzeko, Erreteriarri herrikide hori, aurtengo OARSO 1982. go urtekari honek zuregandik merezi dezan epaiketaren zai gelditzen gara. Bere akatsez gu gara errudunak.

Baina bestetik eta gure alde, asmo onei begira diezaiezun eskatzen dizugu, eta batez ere gure herria zerbitzeko jarri dugun gogoari.

IDAZLE BATZORDEAK

La trayectoria seguida por OARSO durante los últimos años, tratando monográficamente en cada número un asunto de interés general para el país, ha venido dando buen resultado a nuestro entender, y así se expresan en sus comentarios quienes nos hicieron llegar sus opiniones. También creemos que con ello, nuestro pueblo a través de estas páginas, rinde realmente un servicio a nuestra comunidad vasca, aireando un conjunto de opiniones de vascos de reconocido criterio sobre asuntos trascendentes para nuestro pueblo. Estas son las razones que nos mueven a insistir en el sistema, y este año de 1982 lo hacemos con un tema al que puede aplicársele desde el hecho histórico y lo que fue, amén de lo que debiera haber sido, hasta una visión de futuro, prometedora o no según criterios, y también todo aquello a que nos pudiera llevar el hablar con entera libertad de: «LA ENSEÑANZA EN EUSKADI».

Tema amplio este que hemos ofrecido a nuestros colaboradores, dentro del que son posibles como decíamos, los comentarios y razonamientos sobre el pasado y también el soñar y desear un halagüeño futuro aportando desde ahora ideas e iniciativas para lograrlo, y otros muchos aspectos que revisten a esta materia tan fundamental para todos aquellos pueblos que deseen mantener su propia identidad, y que para el nuestro lo es doblemente dado el momento histórico en que nos hallamos, en posesión de un idioma condenado hasta hoy a una evolución intencionadamente pobre y retardada, que nos obliga ahora a alcanzar a toda prisa su adecuación al presente, para que en corto plazo llegue a ser nuestro vehículo de expresión real y cotidiano, en lo hablado y en lo escrito y tanto en lo literario como en lo técnico.

Completando la idea, facilitamos a los colaboradores un esquema de posibles temas de cuyo título completo: «ANÁLISIS DE LA ENSEÑANZA EN EUSKADI. DESDE EL "MAIXU" HASTA LA UNIVERSIDAD PASANDO POR LA IKASTOLA», puede inferirse el gran número de materias que abarcaba, sin olvidar la referencia a casos concretos y acontecimientos pasados.

Después, como otros años, una vez más nos tocó esperar. Esperar mientras se siente ese granillo de ansiedad y de prisa, con mezcla de inquietud y zozobra que también conocemos de otros años. Es una situación de inseguridad en la que nos sentimos «enrollados» y de la que sabemos nos librarán tan solo los colaboradores cuando nos hagan llegar sus escritos y comprobemos hasta dónde «han hincado el diente» al asunto propuesto.

Ahora ya pasó todo y el resultado, querido lector, se encuentra en tus manos.

Aunque no seamos nosotros los más indicados para enjuiciarlo, nos parece que se ha cumplido en un bastante lo proyectado. Existe en el texto un repetido barajeo de términos como instrucción, educación, enseñanza, etc., que indican profundidad de conceptos, verdaderos estudios del tema. A los autores locales quizá haya que culparles su decidida preferencia por el recuerdo y la añoranza, si bien en una publicación local ello, creemos, contiene más de historia que de culpa.

Y ya, querido lector renteriano, no nos queda sino someternos al juicio que pueda merecer este OARSO 1982, de cuyas muchas faltas nos culpamos. En nuestro descargo te rogamos aprecies tan solo los buenos deseos y la gran voluntad de servicio a su pueblo de los renterianos que componemos

LA COMISION DE REDACCION